EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Delegación Territorial de Bizkaia

# BATXILERGOAN MATRIKULATZEKO EGUTEGIA

| | |
|---|---|
| **HEZKUNTZA ESKAINTZAKO DATU OROKORRAK SARTZEA** | |
| apirilaren 30a baino lehenago | • Ordezkaritzak sartuko ditu, ikasturte bakoitzerako, modalitateak, hizkuntza ereduak eta ikastetxe bakoitzak eskainitako talde guztien kopurua. |
| maiatzaren 23ko 24:00ak arte | • Aukera dago apirilaren 30eko datuak aldatzeko modalitateak, hizkuntza ereduak eta eskainitako talde guztien kopuruari buruz. Publikoan Ordezkaritzak egiten ditu aldaketak; itunpekoetan ikastetetxeek. |
| **OOG-REN IRIZPIDEEN AGIRIAREN SARRERA BAREMOA EZARTZEKO XEDEZ** | |
| apirilaren 30a baino lehenago | • Ikastetxeak aplikazio informatikoan sartu behar du dokumentua OOGk erabaki dituen irizpideekin batera, eta horiexen bidez ematen dira baremazioko puntuak.<br>• Agiri bakarra izan beharko du irizpideekin maila guztietarako (lehen hezkuntza, DBH eta batxilergoa). |
| **ESKAINTZA BANATZEA HIZKUNTZA MODALITATE ETA EREDUEN ARTEAN** | |
| maiatzaren 23ko 24:00ak arte | • Ikastetxeak postuen kopurua ezartzen du maila, modalitate eta hizkuntza eredu bakoitzerako. |
| **POSTUEN ERRESERBA** | |
| maiatzaren 23ko 24:00ak arte | • Ikastetxeak aurreikusten ditu gorde beharko dituen postuak ikasle errepikatzaile eta igoko diren ikasleentzat. |
| **ESKAINTZA BEHIN BETIKO ERATZEA** | |
| maiatzaren 23ko 24:00ak arte | • Ikastetxeak egindako banaketan zeuden postuen kopuruari postu gordeen kopurua kentzetik datorren emaitza da. |
| **POSTUEN ESKAINTZA ERATZEA** | |
| maiatzaren 23ko 24:00ak arte | • Ikastetxeak ontzat emana eskaintzari eta postuak gordetzeari. |
| maiatzaren 30a baino lehen | • Ordezkaritzak balioesten ditu eskaintza eta ikastetxeek sartutako postuen gordetzea. |
| **IKASGAIEN BLOKEEN DEFINIZIOA** | |
| apirilaren 30eko 24:00ak arte | • Aukera daukate egiteko erabakitzen duten ikastetxeek. |
| **ONARTZEKO ESKABIDEAK** | |
| maiatzaren 5etik 15era | • Eskabide eta dokumentuak entregatzea (postu erreserbarik ez duten lagunak soilik). |
| maiatzaren 14ko 24:00ak arte | • Eskabidea on-line betetzeko epea |
| maiatzaren 15era arte | • Eskatzaileek aukera daukate eskabide datuak aldatu edo zuzentzeko. |
| maiatzaren 23ko 24:00ak arte | • Epea ikastetxeek eskabide datuen sarrera bukatu dezaten. |

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Delegación Territorial de Bizkaia

| | |
|---|---|
| **BAREMAZIOA** | |
| maiatzaren 5etik maiatzaren 23ko 24:00ak arte | • Ikastetxeek aukera daukate aldatu eta jasotako eskariei egokitzeko eskaintzako hasierako datuak. |
| maiatzaren 30eko 24:00ak baino lehen | • Baremazioa egin behar duten ikastetxeek bukatu beharra daukate. |
| **POSTUAK ESLEITZEA** | |
| ekainaren 4a baino lehen | • Baremazioa egiten duten ikastetxeek atera behar dute postuak esleitzeko prozesua. |
| **LAGUN ONARTU ETA EZ ONARTUEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA** | |
| ekainaren 4a | • Ikastetxeek behin-behineko zerrendak argitaratuko dituzte. |
| ekainaren 9ra arte | • Kargatu egingo dira behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak. Inprimatu egingo zaio erreklamazioko egiaztagiria familiari. |
| ekainaren 12a baino lehen | • Ikastetxeek erreklamazioaren ebazpena kargatuko dute aplikatibo informatikoan. |
| **LAGUN ONARTU ETA EZ ONARTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA** | |
| ekainaren 12a | • Ikastetxeek argitaratuko dituzte behin betiko zerrendak. |
| uztailaren 14ra arte | • Gora jotzeko helegitea behin betiko zerrenden aurka, Ordezkariaren aurrean. |
| **POSTUAK ESLEITZEA ONARTU GABEKO LAGUNEI (BIGARREN ETA HIRUGARREN AUKERAK)** | |
| ekainaren 19a baino lehen | • Ordezkaritzak kargatuko du postu esleipena lehen aukerako ikastetxean posturik lortu ez duten lagunei. |
| ekainaren 19a | • Ikastetxeek argitaratuko dute Ordezkaritzak esleitutako postuen zerrenda. |
| **MATRIKULA FORMALIZATZEA** | |
| ekainaren 23tik uztailaren 4ra | • Matrikulako denboraldi arrunta (lagun guztientzat, postu erreserba dutenak ere barne). |
| uztailaren 7ra arte | • Ikastetxeek grabatuko dituzte ohiko epean jasotako matrikula datuak. |
| irailaren 30eko 24:00ak arte | • Epez kanpoko matrikula. |
| irailaren 30era arte | • Ikastetxeek grabatuko dituzte matrikula guztien datuak (epez kanpo jasoak eta itunpekoak ez diren ikastetxe pribatuetakoak ere barne). |
| urriaren 1az geroztik | • Ezohiko matrikulazioa, Ikastetxeetako lurralde burutzaren baimena jaso ondoren. |

Gran Vía, 85 – 48011 BILBAO
Tef. 94 403 10 47 – Fax 94 403 10 48 – e-mail huisb021@ej-gv.es

# KONTU INTERESGARRIAK

## APLIKAZIORAKO ARAUAK

- 35/2008 Dekretua (martxoaren 6ko EHAA).
- 2014ko martxoaren 7ko Agindua (apirilaren 1eko EHAA)

## IKASTETXEAN BERTAN MATRIKULATUTAKO IKASLEAK 2013-14an

- Bermatua dauka iraupena onarpen eskabiderik gabe, batxilergo artistikoa egiteko izan ezik.

## IKASTETXE ADSKRIBATUKO IKASLEAK

- Lehentasuna dute onartzeko (batxilergo artistikoan izan ezik), baina ez bermerik. Lehentasuna aitortze aldera, eskatu behar du onarpena ikastetxe horretan lehen aukeran.

## INFORMAZIOA FAMILIEN ESKURA

- Arautegi erregulatzailea
- Eragin eremuak eta mugakideak
- Eskabide epea
- Prozesuko egutegia
- Ikastetxeak emandako irizpideak baremoan puntuatzeko
- Egutegia eta jendearen arretarako orduak

## PROZEDURA INFORMATIKOAREN DERRIGORTASUNA

- Informazioko iturri ofizial bakarra batxilergoko ikasleei buruz izango dira aplikatibo informatikoan sartutako datuak
- Dokumentu edo ziurtagiri ofizialak (aktak, titulu ofizialak, etab.) aplikazio informatikoan ageri diren datuetan oinarrizko dira.

## ONARTZEKO ESKABIDEA

- Lehen aukerako ikastetxean egingo da, edo Interneten bidez lehen aukera gisa hautatutako ikastetxeak hartu dezan.
- NA edo ordezkatzen duen dokumentu identifikatzaile bat beharko da aurkeztu

## ESKABIDEA: APLIKATIBOAN SARTU BEHARREKO DATUAK

- Eskatzailearen datu pertsonalak
- Egin dituen eskari guztiak (8 gehienez).
- Litekeen baremaziorako alegatutako inguruabarrak.
- Eskatzaileak entregatutako dokumentuak.

## ESKABIDEA: ESKARIAK

- Atzerriko hizkuntza eta erlijio aukerak sartuko dira
- Aukera egongo da zortziraino egiteko (bakoitzak adieraziko ditu ikastetxea, maila, modalitatea eta hizkuntza eredua).
- Zortziraino egin ahal izango dira (bakoitzak adieraziko du ikastetxe, maila, modalitate eta hizkuntz eredu bat).
- Eredu hirueledunek hizkuntza eredutzat hartuko dira.
- Lehenik sartu beharko dira eskatzaileak lortu nahi duen lehen ikastetxeari dagozkion eskari guztiak.
- Hasierako esleipenean kontuan edukiko dira bakarrik eskatutako lehen ikastetxeko eskariak.

| ESKABIDEA: BESTE KONTURIK |
|---|
| • Ikastetxeek aukera izango dute nahita kargatzeko eskatutako modalitateko ikasgaia eta aukerakoa.<br>• Aplikatiboan sartuko dira alegatutako zirkunstantziak baremazioa egin ahal izateko.<br>• Eskatzaileak ekarritako dokumentuak ere sartuko dira. |
| **ESKABIDEA: BERRESPENA ETA FROGAGIRIA** |
| • Lagunak berretsi egingo du aplikatiboan sartutako datuak zuzendu izana.<br>• Ikastetxeak eskabidea garbatuko du, frogagiria inprimatuko eta interesdunari entregatuko sinatu eta zigilatuta.<br>• Frogagiriak ausazko kopuru bat edukiko du, berdinketa hausterako balioko duena, baremoa egin behar denean. |
| **MATRIKULAREN FORMALIZAZIOA** |
| • Epearen barruan matrikula formalizatzen ez dutenek plaza erreserbarako eskubidea galdu egingo dute, igo diren edo ez diren ikastetxeko bertako ikasleak zein prozesuan onartutako lagunak direlarik.<br>• Aplikatiboan zera sartuko da: maila, lehen atzerri hizkuntza, erlijioari dagokion aukera, hizkuntza eredua, errepikatzaile egoera edo ez, modalitatea, ikasgaiak (hala balegokio, sartu aurreko ikasturtean gainditu gabeko ikasgaiak). |
| **MATRIKULA BERRESTEA** |
| • Matrikulako frogagiria inprimatu, sinatu eta zigilatu egiten da; ez da behin betikoa, eta ez du sortzen eskubide subjektiborik. Izan ere, baldintza du kopururik txikiena iristea taldea egiteko edo ikasgai zehatz bat emateko.<br>• Geroago ikastetxe edo ikasgaiz edonola aldatuz gero, gaurkotu egin beharko da aplikatiboan. |